

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### LAUDIOKO UDALA

#### **Garapenerako Lankidetzak Proiektuak elkarrekin batera finantzatzeko 2018ko Deialdiko diru laguntzen esleipena**

Laudioko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarrak 2019ko uztailaren 19an hartutako Ebazpena, 2018. urtean garapenerako lankidetzak-proiektuak elkarrekin batera finantzatzeko laguntzen deialdiaren barruko diru-laguntzak emateko, 2018ko abenduaren 23ko 148. zenbakia duen ALHAOn argitaratutakoa.

Ikusi delarik laguntzak emateko proposamena, aipatutako deialdian xedatu denaren arabera egindakoa, eta Gizarte Garapen Arloak analisi teknikoa eta laguntza-eskaeren azterketa egin ondoren, Tokiko Gobernu batzarrak hau ebatzi du:

Orotara, 19.510,32 euro batzen dituzten laguntzak ematea jarraian ageri diren elkarrekin, jarraian ageri diren baldintzetan eta zenbateko banakatuekin:

Baltistan Fundazioa: 5.769,65 euro.

Elkarcredit: 6.540,67 euro.

Lankidetzarako Ingeniaritza: 7.200,00 euro.

Laguntza-emateetatik kanpo uztea "Activos por un mundo solidario" elkarrekin eskera, deialdiaren oinarrietan zehaztutako gehieneko zenbatekoa gainditzen duen guztirako aurrekontua aurkeztu duelako, eta, halaber, "Fundación Vicente Ferrer" fundazioak proiektua ez datorrelako bat aurkeztutakoa deialdiaren oinarrietan esku hartzeko jaso diren esparruetako bakar batekin ere.

Ebazpen honek administrazio-bideari amaiera eman dio. Aldekoa ala aurkakoa izan, berraztertze-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da ebazpena eman duen organoaren aurrean, jakinarazpena jasotzen den egunetik hilabeteko epe barruan, urriaren 1eko 39/2015 Legearen, Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoaren 123 eta 124 artikuluetan xedatutakoari jarraikiz.

Berraztertze-errekurtso hori ez bada aurkeztzen, auzitara jotzeko bidea zabalik geratuko da, eta, beraz, Gasteizko Administrazioarekiko Auzitarako Epaitegian administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahalko da bi hilabeteko epean, ebazpenaren jakinarazpena jasotzen den egunaren biharamunetik zenbatzen hasita.

Laudion, 2019ko abuztuaren 1ean

*Alkate-udalburua*

*ANDER AÑIBARRO MAESTRE*